



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Pantailetan euskara ehuntzen

Baliabide zerrenda

Pantailakeuskaraz.eus webgunean, erabiltzaile guztien eskura, euskara pantailetara eramanean duten baliabideen zerrenda eguneratua topatu dezakezue. **Zerrenda orokorra**, alde batetik; **hezkuntzarako baliabideen** zerrenda, bestetik. Pantailak Euskaraz ekimenarekin batera, beste biren lana nabarmendu nahiko nuke.

Alde batetik, **Euskal Encodings**. Euskarara bikoiztutako eta azpidatzitako edukien datu-basea, edukiak deskargatuta edo online ikusteko aukera eskaintzen duena. Sareko euskarazko film eta telesailen biltegirik handiena da. 2003tik auzolanean ari den komunitate irekiak, eta diru asmorik gabekoak, egiten duen lana txapela kentzeko modukoa da. Hasieran, “Dragoi Bola”-ko atalak denen eskura jartzeko asmo soila zena, 21 urteren ostean, euskarazko ikus-entzunezkoen biltegirik handiena bilakatu da. Topatu daitezkeen lan horietako gehien-gehienek diru publikoari esker sortuak dira. Tamalez, begi-bistakoa da lan hori egin beharko lukeena ez dela egoki egiten ari.

ZerNonIkusi.eus egitasmoa ere azpimarratuko dut. Streaming plataformetan euskaraz dauden edukien zerrenda eskaintzen du, zein plataformatan dagoen aipatuz eta edukia- ren informazioa emanez. Horrez gain, zinemetako euskarazko estreinaldien inguruko informazioa ere biltzen du. Nire asteroko ezinbesteko erre- minta bilakatu da, eta bertako informazioari esker izan dut aukera jarraian datorren ze- rrenda behar bezala osatzeko.

Pantailak Euskaraz, ZerNonIkusi, Euskal-Encodings eta abar. Ikus-entzunezkoak maite eta eduki horiek euskaraz ikusi nahi ditugunok zer egingo genuke tankera horretako ekimenak egongo ez balira? Benetan kontziente al gara egiten duten lan miresgarriaz? Gaurko tartean, VoD plataformetan euskaraz topatu daitezkeen telesailik interesgarrienak zerrendatzeaz gain, gaiarekin loturiko zenbait gako emango dizkizuet.

Euskarazko telesail interesgarriak

KOLAPSOA

PRIMERAN (Bikoiztua eta azpititulatua)

“L'effondrement” (Kolapsoa), zortzi atal dituen miniserie paregabea da, eta kapitulu horietako bakoitza sekuentzia plano bakar batean grabatua dago. Hasieran ezagutzen ez dugun gertaera konkretu batek, gizartearen erabateko ko-



lapsoa eragin du. Zortzi gertaera independente dira, kolapsoa eragin duen gertaeratik egun desberdinetara kokatuak. Bakoitza, denbora errealean grabaturiko emozioen errusiar mendi bat da, non abentura, akzioa, drama, eta larritasuna, lehen pertsona eta ekintzaren barnean egongo bazina bezala biziko dituzun, ia bideojoko batean egongo bazina bezala. Larrigarria eta frenetikoa da. Aparta. Lehen minutuan lepotik heldu eta azken segundoraino askatzen ez zaituen telesail zorbiagarria. “Kolapsoa” beldurra transmititzen duen istorioa da, erakusten duen gizartearen desintegrazioa guztiz sinisgarria delako, eta nahiko identifikagarria, zoritxarrez.

BLUE LIGHTS

MOVISTAR (Azpititulatua)


Belfasten lan egiten duten polizia hasiberri batzuen egunerokoa islatzen duen istorioa da. «Hiri horretan polizia iza-

teak dakartzan presio eta arriskuak erakusten dituena», dio sinopsiak. Gomendatzen dudana telesaila da, oso gustura ikusi dut, entretenigarria da, bizia, aktoreak bikainak dira eta oro har primerako ekoizpen lana iruditzen zait. Trabarik handiena? Poliziak diren zenbait pertsonaiekin –ez guztiekin– loturirik ez dudala sentitu. Erakusten duen gatazkaren alderdi bateko pertsonaiek eta egoerak hain muturrekoak irudikatzeak apur bat atera nau hasieran. Egia da, bestalde, atalak igaro ahala nire iritzia aldatuz joan dela, polizien lana ez dutelako kritikatzeko, baina ezta mitifikatzeko ere, tarteko bidean geratzen dira, eta hori interesgarriagoa iruditu zait.

MY MAD FAT DIARY

PRIMERAN (Bikoiztua eta azpititulatua)

Urteen poderioz kultuzkoa bilakatu den telesaila. Rae Earl idazlearen “My Fat, Mad Teenage



Diary” eleberrian oinarrituta dago. Earl beraren pertsonaia da telesaileko protagonista, Sharon Rooney aktoreak gorpuztua. 1990eko hamarkadaren erdialdean Stamford-en (Lincolnshire, Ingalaterra) girotua, 16 urteko Rae Earl-en istorioa azaltzen du, lau hilabeteren ostean ospitale psikiatrikotik irten berri den gaztearena. Garun osasuna, lodifobia, harremanak, bakardadea... gai interesgarriak jorratzen ditu telesailak.

HONDAR AHOAK

PRIMERAN (Euskaraz eta azpigitulaturatua)

Itzulunguruka ibili gabe esango dut: inoiz egin den euskal telesailik onena da. Euskal kostaldeko herrixka batean girotua, itsasontzi baten patroiairen desagerpena ikertzea helburu duen polizia-inspektore baten etorrerarekin batera hasiko da istorioa. Protagonista nagusiak Nagore Aranburu eta Eneko Sagardoy dira. Istorio nagusia Ondarroan girotzen da eta, Ipar Europako eta Ipar Amerikako nobela beltzetan eta telesailetan sarritan ikusi izan dugun moduan, kokalekuak berak berebiziko garrantzia izango du hemen ere. Ondarroa beste pertsonaia bat gehiago izango baita, eta aitzakia horrekin ber-



tako mikrokosmos txiki horren erradiografia egiteko baliagarria izango zaigu. Miniserie hau osatzen duten elementu guztiak azken zirrikituraino zainduak daude. Hasi Javi Agirre maisuaren argazkilaritza lan txundigarriarekin, Alazne Amezttoy-en ezinbesteko zuzeneko soinuarekin, Aitor Etxebarriaren soinu banda hipnotikoarekin, Zaloa Ziluagaren arte zuzendaritza zainduarekin eta, jakina, bigarren unitatean arituz den Asier Altunaren zuzendaritza lanarekin.

THE BOYS

(Azpigitulaturatua)

Zeinen ongi pasatzen dudan telesail hau ikusten; gozamen hutsa iruditzen zait, ganberroa, entretenigarria eta basatia, superheroiaren munduko satira gupidagabea eta zorrotza. Superheroiak ospearean eraginpean jarrera zalantzarriak hartzen dituzten mundu batean girotua dago; beren buruak ustel-



keria bidean jarri eta, are ospe-tsua bilakatzeko helburuz, gizateria arriskuan jarriko dute. Baina umore beltz eta entretenimendu horren muinean, gainera, idoloak behar dituen gizarte bati buruzko etsipenezko begirada ikaragarria ere eskaintzen du.

Ikuspegi ezkor eta amoral horretan datza “The boys”-en indarra, nire ustez; Marvel eta DC faktoriekin erraz identifikatuzkeen superheroiak, hezur-haragizko pertsonen antagonista bihurtuak, ustelkerian oinarritutako *status quo* horri moztasuna kentzeko borrokan ari diren benetako heroiak. Proposamen ezin hobea superheroiaren generoa gorroto dutenentzat, beren jarrera berresten lagunduko die.

PATRICK MELROSE

(Azpigitulaturatua)

Orain gutxi ikusi dut bigarren aldiz 2018ko miniserie hau, eta paregabea iruditzen zait. Ed-

ward St Aubyn idazlearen bost liburutan oinarrituriko kontakizuna da. Benedict Cumberbatch aktore bikaina da protagonista, eta bost atal ditu kontakizunak, bakoitza gertakizun konkretu baterako bidaia bihurtzen da. Bere barne-deabruak gaintitu eta haurtzaro zail baten ondorioz drogekin dituen arazoak gaintitzen saiatzen ari den aristokrata ingeles bat gorpuzten du.

Alde batetik, diru gehiegi izateak sor dezakeen bakardade jasanezinari buruzko kontakizun gordina da. Drogak ihesbide gisa erabiliz, mundu honetan bere tokia aurkitzen ez duen pertsona baten egunerokoa aztertzen du. Haurtzaro traumatiko batek etorkizunean utz ditzakeen oinazeei buruzko ikerketa beldurgarria dela ere gehituko nuke. Zinemak eskaintzen dituen erremintak maisuki zukutzen dira ekoizpen honetan.

YEARS AND YEARS

MOVISTAR (Azpigitulaturatua)

15 urtetan zehar, Lyon familiaren istorioa ikusteko aukera izango duzu, betiere urte horietan gizarte britainiarrean – eta munduan – ezinbestekoak izango diren gertaera politiko, ekonomiko eta teknologikoek izango duten eragin ikaragarria kontua izanda. Sinopsia drama familiar arrunt baten inguruko istorio aspergarria irudituko zaizun arren, topa-



tuko duzuna guztiz kontrakoa izango da.

Errazago azaltzen saiatuko naiz. Hartu irabiagailua eta sartu: “Black Mirror” telesailaren xafla batzuk, “Sense8”-eko eta “This is Us”-eko pertsonaien mamia, drama, umore beltza eta distopia esentzia apur bat. Alexa, Brexita, transhumanismoa, errefuxiatuak, gidoi biraketa harrigarriak eta erritmo frenetikoa. Guztia ongi nahastu. Eraitza, HBOn ikusgai daukazun “Years & Years” telesaila. A ze harribitxia!

TIME

MOVISTAR (Azpituatua)

Zer-nolako erakustaldia eskaintzen duten Sean Bean eta Stephen Graham aktoreek hiru atalez osaturiko telesail motz honetan. Kartzelako drama xumea, iluna, baina, aldi berean, hunkigarria. Britainia Handiko kartzela-sistemaren erretratu gordina azaltzeaz gain, bizitzan hartutako erabaki txarrek amildegira eramandako pertsonen buruzko erradiografia zehatz bat ere erakusten du.

Istoria honetako bi protagonista nagusiak legearen alde banatan daude, baina biak etsaitasunezko ingurune batean biziraute saiatzen dira. Abilezia txundigarri, Lewis Arnold zuzendariak eta Jimmy McGovern-en gidoi bikainak bi pertsonaia horien barnean murgilduko gaituzte, eta lehen segundotik lagunduko diegu beren infernu pertsonaletara egiten duten bidaia horretan. Zuzendaritza lan paregabe, gidoi biribilez eta interpretazio bikainez bildutako istorio zuzena, bortitza, errealista eta oso gordina da.



BEEF

NETFLIX (Azpituatua)

Bi ezezagunen arteko trafiko gorabehera batek bien alderdirik ilunena azaleratuko duen gatazka sortuko du. Danny Cho bere kabuz lan egiten duen gizona da, kontratatzen duten etxeetan era guztietako konponketak egiten dituen. Bizitza nahiko bakartia eta prekarioa dauka. Amy Lau, al-diz, arrakasta handiko enpresaria da, diruduna eta, ustez behintzat, ametsetako bizitza daraman emakumea.

Txikikeria dirudien gorabehera arrunt hori tsunami bat eragingo duen ur-tanta izango da. Bi pertsona oso desberdinek bizi duten krisi existentzialari buruzko kontakizuna da, eta arazo pertsonal horrek, gertaera “txiki” horrekin uztartuz, geldiezina izango den eztanda nola eragiten duen azaltzen duena.

Era oso desberdinetan bada ere, gizarte-klaseen bi aldeetan sufritzen dela erakusten du telesailak. Aparta iruditu zait. Umore beltzez jositako telesail bizia, nahiko basatia, oso entretenigarria eta nortasun handikoa bisualki.

LOST OLLIE

NETFLIX (Bikoiztua eta azpituatua)

Helduek ikusteko oso apropos den arren, zerrenda honetan ezin zen falta etxeko txikiek ikusteko moduko zerbait. Hori bai, telesaila, oro har, haurrentzat aproposa den arren, eszena eta egoera batzuk apur bat ilunxeagoak dira, eta zazpi urtetik gorako haurrentzat gomendatuko nuke; eta, ahal bada, familian ikusteko, bereziki. Duen norta-

sun bisual paregabea dela-eta, txikienak pantailara iltzatuta geratuko diren arren, telesailak zabaltzen dituen zenbait mezu eta hausnarketa sakonegiak dira beraiek ulertzeko.

Premisa sinplea da: Ollie ize-neko peluxezko untxia bere lagunik onenaren bila dabil. Billy haur adoptatua da, eta amaren osasunaren etengabe-ko narriadura jasaten du. Biko-teak abentura epiko bati ekin-go dio, haurtzaroak ekar liezazkiekeen arrisku guztien aurrean, berriro elkartzeko. Oso polita.

Iritsi berriak eta datozenak

“**Toure detektibea**” iritsi da, baina TVErekin batera ekoitzi dutenez, gaztelaniaz grabatua dago eta ondoren euskarara bikoiztua. **Prime Videon**, 2014. urtean eta Hong Kongen girotua dagoen eta Nicole Kidman protagonista duen “**Expats**” telesailak euskarazko azpidatziak ditu. Netflixeko “**Griselda**”, “**Squid Game**” eta “**Boy Swallows Universe**” ekoizpe-nek ere aukera berbera eskaintzen dute. Aurrera begira, bi izenburu garrantzitsu ere euskarazko azpidatziekin iritsiko zaizkigu: otsailaren 22an “**Avatar: The Last Airbender**”, eta apirilaren 12an “**Fallout**”.

Egungo egoera eta etorkizuna

Ikus-entzunezkoen lege berriari esker, plataformak hasiak dira euskarazko azpidatziak eta, neurri xumeagoan, bikoizketak ere eskaintzen. Euskarazko azpidatziek loraldi txiki bat bizi dutela baieztadaiteke. Albiste pozgarriak dira zinez, baina, euskarazko eskaintzaren kantitatea handitu dela nabaria den arren, kalitatea da kezkabide askorentzat.

Josu Barambones itzultzaileak, adibidez, tristuraz behatu zituen streaming plataformetan azaltzen diren euskarazko azpidatziak. Ageriko akats asko daude eta, hortaz, azterketa egin zuen, Netflixen dauden bost ikus-entzunezko hartuta. Ondorio penagarriak atera ditu. «Esango nuke gramatikaren erabateko kolapso baten aurrean gaudela, eta kolapso hori oso zabalduta dagoela aztertu ditudan testuetan», dio Barambonesek.

Azpidatzien hizkuntza-kalitatea aztertzerakoan, ez da ibili euskara perfektu eta makulagabe baten bila, baina ispilu bat behar zuela dio azterketa linguistikoa egiteko. Ispilu hori euskara batua izan da, eta oroz gain hiztunen idatzizko erabilera landuak ezarritako arau eta konbentzioak.



Zinemetan, aldiz, errealitatea oso bestelakoa da. Argi esanda: euskaldunak bigarren mailako hiritarrak gara. 2024a, zorionez, “**Bizkarsoro**”-ren arrakasta itzelarekin hasi dugun arren, –“**Negu hurbi-lak**” filmaren estreinaldia ere ate joka dugu–, 2023an “**Irati**” filma izan zen zinemetan euskaraz estreinatu zen fikziozko film bakarra. 2023 osoan zehar ez zen euskarazko fikziozko film gehiago estreinatu, euskarazko hainbat dokumental eta haurrentzako nazioarteko pelikula batzuk euskarara bikoiztuta estreinatu baziren ere.

Pantailak Euskaraz eta horren partaide den Zinemak Euskaraz ekimenak 2023an Hego Euskal Herriko zinema komertzialetan egondako estreinaldi kopurua eta eskaintako filmen hizkuntza aztertu dituzte, eta datuak gordin bezain kezkagarriak dira: euskarazko jatorrizko hizkuntzan,

euskarara bikoiztuta edo euskarara azpidatzita eskaini den estreinaldi kopurua ez da %2,5era iritsi. Gaztelaniaz edo gaztelaniara azpidatzita, berriaz, filmen %100 eskaini dira.

Datu positibo eta itxaropen-tsu batekin amaitze aldera, iazko Donostiako Zinemaldian, hobekuntza nabarmenak izan zirela nabarmendu nahiko nuke: euskarazko azpidatziekin eman zituzten Sail Ofizialeko film guztiak. Primeran plataformaren etorrerarekin pozik nago eta umeentzako Makusi plataforma ere abian jarriko du EITBk udaberrian.

Ikusi duzuen moduan, badira euskara pantailetan txertatzeko ahaleginean lan miresgarria egiten dutenak. Zer gertatzen da, ordea, Jaurlaritzako kultura eta ikus-entzunezkoen politikarekin? Iaz, Euskal Herriko hainbat eragilek Aldatu Gidoia kanpaina abiatu zuten, Jaurlaritzari eta EITBri kulturaren eta ikus-entzunezkoen politikak «errotik» aldatzeko eskatzeko.

Ikus-entzunezkoetan euskarak presentzia sendoagoa izateko, herri mugimenduen aldarriak jarraipena izango du datozen hilabeteetan. Hala, Aldatu Gidoia egitasmokoek mobilizazio bat iragarri dute maiatzaren 18rako Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren aurrealdean.

Borondatea baldin badago, posible da gauzak aldatzea. Jarrai dezagun guztion artean euskara pantailetan ehuntzen.

